ALEX FERNANDEZ MUERZA

# "Kontsumitzaileok merkatu-joerak alda ditzakegu erosterako orduan hartzen ditugun erabakien bidez"



*Alex Fernandez Muerza (Bilbo, 1972). Zientzia Kazetaritzan doktore EHUren eskutik (2004). "Estudio del periodismo científico en la prensa de referencia: el caso español a partir de un análisis comparativo" (Erreferentziazko prentsan lantzen den zientzia-kazetaritzaren azterketa: Espainiako kasua, analisi konparatiboa oinarri hartuta) doktore tesiaren egilea. Gaur egun Ingurumenari eta Zientziari buruzko sailaren arduraduna da Eroskiren Consumer aldizkarian. 2004. urtetik dihardu komunikabide horretan lanean. Era berean,* E-ciencia.com *web gunearen sortzaile eta editore da. Zientziarekin eta ingurumenarekin lotutako gaiei buruz idazten du hainbat komunikabidetan, hala nola,* Quo, El País, Muy Interesante, *etab.*

**Gero eta jende gehiagok jotzen du *Consumer* eta antzeko aldizkarietara informazio praktikoaren bila...**

Bai, *Consumer*rena kasu bitxia da. Kontsumoan espezializatutako komunikabidea bada ere, parez pare lehiatzen da komunikabide handiekin. Esaterako, joan den hilean *Consumer.es* web guneak hiru milioi bisita baino gehiago izan zituen. Bertan ari garen profesionalen lanak izan dezakeen balioaz gain, datu horrek adierazten du gaur egungo herritarrek interes handia dutela euren eguneroko bizimoduan eragina duten gaien inguruan, argi eta garbi.

**Zein da komunikabideen eta kontsumitzaileen arteko harremana?**

Kontsumitzaileok merkatu-joerak alda ditzakegu erosterako orduan hartzen ditugun erabakien bidez, eta horrela, ingurumenarekiko errespetua ere kalitate-eskakizun bilaka dezakegu. Baina horretarako, kontsumitzaileek kontzientziatuta eta informatuta egon behar dute, zer eta nola egin jakin. Ildo horretan, ingurumen-kazetariak ere funtsezkoak izan litezke. Ingurumenak kontsumitzaileen egunerokoan duen eragina isla dezakete euren lanean, nola hondatzen ari den erakutsi, eta hori saihesteko egin litekeena azaldu.

**Sare sozialak erabiltzen al dituzue kontsumitzaileen interesekoak diren gaiak antzemateko?**

Bai, Facebook, Twitter eta antzerako sare sozialak modan daude eta ingurumenarekin lotutako eduki asko azaltzen dira horietan. Modu egokian erabiltzen jakinez gero, gainontzeko komunikabideetatik datorkigun informazioa osatzeko tresna lagungarria dira. Dena den, nolabaiteko perspektiba izan behar dugu, ez baitira uste den bezain emankorrak.

**Nola jorratzen dituzte zientziari eta ingurumenari buruzko gaiak orotariko argitalpenetan? Katastrofistak izateko joera al dute?**

Japonian gertatu berri den hondamendi naturalean eta nuklearrean komunikabide batzuek ez dute informazio zuzena eskaini, eta gehiegi erabili dituzte adjektibo katastrofistak eta apokaliptikoak. Hori ikusita, bertan bizi diren Espainiako herritar talde bat Interneten bidez antolatu zen komunikabide espainiarrei prentsa-oharra bidaltzeko, non eskatzen zieten gehiegikerian ez erortzeko, izan ere, zabaltzen ari ziren informazioa benetakoa ez izateaz gain, euren familiartekoentzat izugarria baitzen.

**Gizartea inplikatuta al dago ingurumen-gaietan?**

FECYT zientziarako eta teknologiarako Espainiako Fundazioak egin duen Pertzepzio sozialari buruzko azken inkestaren arabera, biztanleriak dio nahi lukeena baino informazio gutxiago duela ingurumenaren, osasunaren, zientziaren eta teknologiaren inguruko gaiez. Haatik, kirolari, politikari eta famosoei buruz gehiegizko informazioa duela uste du.

**Gutxietsita al dago kazetariaren eginkizuna?**

Kazetaria ez da informazio-iturriaren eta publikoaren artean bitartekari-lana egiten duen bakarra, eta beraz, panorama berri baten aurrean gaude eta horretara moldatu beharko dugu.

**Norainoko lotura duzu ingurumen-gaiekin? Egunero planetan gertatzen dena hurbiletik ikusten duenak, aktibista izatea erabakitzen al du, ala ez halabeharrez?**

Ingurumen-kazetariaren lana aktibista izateko era bat dela uste dut. Gure lana egitean ingurumenaren alde ere egiten dugu. Beste gauza bat da gaiak kanpotik ikusita lantzea, hau da, ikuspuntu neutral batetik, sartu gabe eta inolako mugimenduren, alderdiren edo antolakunderen alde egin gabe.

**Ondo informatuta dagoen herritarra zarenez, zeintzuk dira gehien kezkatzen zaituzten ingurumen-gaiak?**

Nigan eragin zuzena dutenak: kutsadura, energia eta hondakinak. Era berean, klima-aldaketa ere kezkagarria da, datozen hamarkadetara begira ere. Baina aldi berean aukera bat ere bada: beharrezko neurriak hartzen badira mundu hobea lortuko dugu, ondorioak puztu ote diren ala ez alde batera utzita.

**Maider Sillero**

**Elkarrizketa osoa:** www.euskonews.com/577zbk/

La entrevista completa está disponible en euskera y castellano en la dirección mencionada.

Ismael Diaz de Mendibil

# 15 urte Radio Vitorian
# *15 años en Radio Vitoria*

15 urte adin polita da, are gehiago, irratsaio bati buruz ari bagara. 15 urte, 675 bat irratsaio, 1.500 gonbidatu baino gehiago... Maiatzean Eusko Ikaskuntzaren irratsaioak 15 urte betetzen ditu Radio Vitorian.

Las tertulias de Eusko Ikaskuntza en Radio Vitoria son ya un clásico de la radiodifusión alavesa. La cita no es otra que todos los domingos a las diez de la noche. Una hora un poco complicada, ya que para esas horas, quien más quien menos piensa ya en la rutina diaria, en el lunes, en la vuelta al trabajo, al fin y al cabo.

En la franja horaria que nos corresponde competimos ahora y siempre con las retransmisiones radiofónicas del último partido de fútbol de la jornada, pero también con el *Conquistador* de los televisivos Juanito Oiarzabal y Korta, o en otras temporadas con el *Gran Hermano* de Mercedes Milá. Los reality shows, y cómo no, el fútbol tienen su fuerza, pero nosotros gracias a una fiel audiencia, también tenemos nuestro público. Nuestras herramientas son el conocimiento de los tertulianos, la cercanía de los temas, pero sobre todo, las ganas por divulgarlos, ganas compartidas por Radio Vitoria y Eusko Ikaskuntza.

**600 temas, 1.500 invitados**

La ecuación era y es perfecta. Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos cuenta con el conocimiento, Radio Vitoria con las herramientas para difundirlo, y al otro lado el ciudadano, deseoso de recibirlo. Gracias a esta ecuación llevamos 15 años en antena. 15 años en los que hemos hablado sobre más de 600 temas diferentes, y en los que han participado alrededor de 1.500 invitados.

Por los estudios, antes en pleno centro de Vitoria-Gasteiz, y ahora en la zona universitaria, en Domingo Martínez de Aragón, han pasado alcaldes, concejales, diputados forales, presidentes de Juntas Generales de Álava, parlamentarios vascos, sindicalistas, empresarios, jóvenes investigadores, profesores universitarios, médicos, pacientes... De izquierdas, de derechas, de diferentes identidades, pudientes, humildes... Personas que generosamente dedican su tiempo y conocimientos sólo por el gusto y el interés de participarlos con los oyentes.

Seiscientos temas dan para mucho, tanto como para grabar hace tres lustros en viejas bobinas de radio, y hacerlo hoy en día, gracias a un salto tecnológico espectacular, en sistema digital.

La radio es información y entretenimiento. Nosotros intentamos entretener divulgando. Unas veces lo conseguimos, otras no, pero nuestros oyentes nunca se duermen sin conocer algo nuevo. De hecho, diferentes oyentes muchas veces me han parado por la calle, y me han sugerido, y me han corregido, y me han animado... Todavía me sorprendo de la cantidad de gente que puede estar oyendo la radio un domingo por la noche. Y que sigan, porque lo nuestro es por y para ellos. A todo esto hay que añadir, que desde 1998 este programa es digitalizado y se puede escuchar en cualquier punto del planeta gracias a internet. Así que según los datos, a los miles de oyentes debemos sumar unos cuantos cientos de internautas que se conectan semanalmente con nosotros gracias a *Euskonews*.

**El remanso de los domingos**

En cuanto a los temas, se ha hecho de todo. Debates culturales, historias olvidadas, tertulias pegadas a la actualidad, investigaciones incipientes... Temas en los que quien ha acudido a Radio Vitoria ha opinado y ha aportado en total libertad. Siempre con un estilo coloquial, cercano, tratando de huir de planteamientos académicos o excesivamente rígidos. Y siempre de manera pausada, relajada, con rigor y respeto, algo cada vez menos frecuente en los medios, donde prima el titular, hay excesiva información, pero poca comunicación y rumia de ideas. Por eso, nos gusta pensar que nuestros oyentes agradecen esta hora de reflexión, conocimiento y entretenimiento, ese remanso nocturno de cada domingo.

Resumir 15 años no es tarea sencilla. Además nos hace a todos y a todas 15 años más viejos, asi que de momento hasta aquí hemos llegado. A todos y a todas las que han hecho posible las tertulias de Eusko Ikaskuntza en Radio Vitoria, eskerrik asko. Badakizue nahi izanez gero, zita igandero gaueko hamarretan Radio Vitorian duzue.

## Paperetik sarera

www.euskomedia.org



Jose Antonio Arana Martija






## Musika letra etzanetan

Sei urtekoa zela, Gernika bere herriaren bonbardaketaren lekuko izan zen, eta bertan hil zen tragedia haren 74. urteurrenaren oroitzapena egiten ari ginela. Jose Antonio Arana Martija XX. mendearen bigarren erdialdeko pertsonarik eraginkorrenetako bat izan da euskal musikaren ikerketa eta dibulgazioaren alorrean, eta, era berean, bere garaiarekin eta herrialdearekin sendo konprometituriko gizona izan zen.

Heriotza gertatu baino lau egun lehenago, Jose Antonio Arana Martijak bere bizitzako azken elkarrizketa izango zena eman zion *Euskonews* astekariari. Bertan, gainbegiratu bat ematen die hainbat alderdiri: bizi jardunbidea, musikarekiko grina, espetxeko egonaldia, garai desberdinetan markatu eta lagundu dioten pertsonak... Historiarako dokumentu bat eta Eusko Ikaskuntzaren 2010eko Manuel Lekuona Saridunaren agur gisa geratzen diren hitzak. Musikologo handiarekin egindako elkarrizketa hau jarri dugu www.euskomedia.org web gunearen Atejoka hilabeteko aukeran.

Arana Martija 1931ko martxoaren 10ean jaio zen. Hilabete horretako lehen egunerako deituriko hauteskunde orokorrek Damaso Berenguer jeneralaren “dictablanda” deiturikoari zilegitasuna ematea zuten helburu, militar horrek urtebete lehenago Primo de Rivera jenerala ordeztu zuela. Bozketarako dei hark hautagaiak, propaganda eta kazeten arteko borroka... izan zituen, baina, laguntzarik ezean, ez zen gauzatzera iritsi. Diktaduraren amaieratik bederatzigarren udal hauteskundeak eta Nafarroan Foru Parlamentukoak ere egingo diren hilabete honetan, interesgarri deritzagu “Las proyectadas elecciones del General Berenguer en Navarra” artikulua berreskuratzea, Alberto Garcia Umbon ikertzaileak Historia-Geografia Koadernoen 10. alean argitaratu zuena.

Joan den hilabetean, Manuel de Larramendi Bibliografia Institutuak antolaturik, I. Euskal Bibliografia Biltzarra egin zen Zarautzen. Hamalau txosten aurkeztu ziren, guzti-guztiak oso maila nabarmenekoak. Aitor Aurrekoetxea Estetika irakasldeak “Juan de Yciar. Estética y poética de un vasco universal” gaiari buruz hitz egin zuen. Juan de Yciar durangarra, espainiar kaligrafiaren sortzaile eta “letra etzanaren aita”-tzat jotzen dena, pertsona ospetsu ezezaguna eta berezia dugu, Auñamendi Entziklopedian haren izena kontsultatuz berrets daitekeenez.

Eta hitz hauei guztiei musika jarriz amaituko dugu. Lirika apur bat hilerik loretsuena ospatzeko euskal kantutegiaren pieza polit bat dela bide: *Maiatza da* izenburukoa, Donapaleuko ondare tradizionalekoa. Entzuteko eta kantatzeko, sartu www.euskomedia.org web gunean.

Itziar Larrinaga

# Agur, José Antonio!

*Biotzean min dut, min etsia,*
*negar ixilla darion miña*

X. Lizardi



La Sección de Música de Eusko Ikaskuntza llora la muerte de uno de sus presidentes y colaboradores incansables a quien reconoce como una de las figuras más activas en el estudio y la difusión de la música vasca a lo largo de la segunda mitad del siglo XX.

El pasado 4 de febrero tuvimos la alegría de recibirlo en la sede de Bilbao, donde celebramos con él, en el marco de una reunión de Sección, la concesión del Premio Manuel Lekuona 2010. ¡Qué contento estaba! ¡Radiante! Le obsequiamos un pequeño librito encuadernado artesanalmente en el que recogíamos la documentación aportada para la obtención del Premio y en el que se veía reflejado el cariñoso y comprometido apoyo de la Sección así como de instituciones vascas muy queridas por él: Euskaltzaindia, Eresbil, Musika Hamabostaldia, Musikene, Euskal Herriko Abesbatzen Elkartea, Bizkaiko Abesbatzen Elkartea, Bizkaiko Abesbatzen Astea, Gipuzkoako Abesbatzen Elkartea, Bilboko Koral Elkartea, Gernikako Andra Mari Korala, Gernikako Marijesiak, Gernikako Udala... Aunque no ha podido recibir el galardón en vida, lo llevó en su corazón y lo saboreó ilusionado desde el primer momento.

El 27 de junio de 2008 disfrutamos con él de otro hermoso día, esta vez en la sede de la Sociedad Coral de Bilbao, donde celebramos una Jornada en su honor. Allí presentamos *Musiker 15: Jose Antonio Arana Martijari Omenaldia* (Jon Bagüés, ed. lit.). En la publicación recogíamos contribuciones dedicadas específicamente a él: las de Antton Zubikarai, Josemari Vélez de Mendizábal, Patxi Oroz, Agustín González Acilu y José Mª Zapirain; y también la de Jon Ander Eizagirre y la de Josune Olabarria, Pruden Gartzia y Nere Altuna, que incluían, respectivamente, el catálogo de obras musicales y discografía de José Antonio y la relación de sus más de 200 escritos sobre música y músicos en el País Vasco. Entre ellos, resulta obligado citar aquí su influyente libro *Música Vasca,* publicado en 1976 por la Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, ya que constituye la primera aportación global, extensa y documentada sobre la historia de la música en Euskal Herria; y es, por el momento, la única.

En *Musiker* 15 colaboraron, además, Carmen Rodríguez Suso, Karlos Sánchez Ekiza, Klaus Niebel, José Luis Ansorena, Joanito Dorronsoro, Imanol Olaizola, Isabel Díaz Morlán, Esteban Elizondo, Beatriz Balerdi, Peio Leiñena, Jaione Landaberea y Jon Bagüés con escritos muy diversos sobre música y músicos en el País Vasco, así como con trabajos sobre documentación musical.

La Jornada fue presentada por Cecilio Gerrikabeitia y Jon Kortazar, y en ella participaron los ya mencionados Zubikarai –que glosó la figura del homenajeado– y Bagüés –que habló sobre la riqueza fondo Arana Martija de Eresbil, que consta de 8995 documentos–, así como Itziar Larrinaga –que presentó la publicación–. Finalmente, intervino José Antonio, agradecido y emocionado, a quien entregamos una placa conmemorativa. Para finalizar, y antes de dar paso al lunch, Berziztu Txistu Banda interpretó, entre otras obras, varias melodías tradicionales arregladas por él.

La Sección reconocía de este modo su compromiso y entrega a la cultura vasca, particularmente a la música y a la musicología. Este reconocimiento se ha coronado en diciembre de 2010 con la concesión del Premio Manuel Lekuona por parte de la Junta Permanente de Eusko Ikaskuntza. Todos nosotros nos sentimos muy felices por ello. Zorionak, José Antonio egindako lanagatik eta zure bihotz zabalagatik!

*Biotzean min dut, min etsia,*
*zotiñik-gabeko negar-miña*

X. Lizardi

Musika Sailak, une latz honetan, familiaren oinazearekin bat egiten du eta bere doluminak agertzen dizkio.

**Jose Antonio Arana-Martijari omenaldia = Homenaje a Jose Antonio Arana-Martija** / Jon Bagüés, ed. lit. – 453 or. : ir. ; 24 cm. – Non: *Musiker. Cuadernos de Música*, 15. - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2007. – ISBN: 978-84-8419-141-4.

# Gertatu zen







Enrique Eguren

## 1921: Mapa gora eta mapa behera

## 1921: A vueltas con el Mapa

## 1921: En insistant sur la Carte

Gaur egun Informazio Geografikoko Sistemak eta beste tresna digitalak ditugu gure esku, espazioak arakatzea eta deskribatzea errazten dutenak. Orain dela 90 urte, ordea, kontua ez zen hain erraza.

Eusko Ikaskuntza sortu eta berehala, 1919ko martxoan, hain desiratua zen “Euskal Herriko Mapa” osoa eta zehatza diseinatzeko proiektua hartu zuen bere gain elkarteak. Baina, proiektuan buru-belarri sarturik, egitekoaren konplexutasuna agertu zen. 1921eko maiatzean, Luis Sierra Bustamante, proiektuaren arduradun nagusiak jakinarazi zion Batzar Iraunkorrari datu geodesiko eta topografikoak falta zirela teknikoki zehatza izango litzatekeen mapa bat gauzatu ahal izateko. Kartografia arloko arazo hauei toponimiakoak eransten zitzaizkien, egiteko horretan Euskaltzaindia inplikatu zelarik. Proiektu osoa berraztertu behar izan zuten.

### Algo más que un Mapa: un Atlas

El “Mapa del País Vasco” se podría ampliar en forma de Gran Atlas si, como era deseo entusiastamente expresado por Enrique Eguren, se hacía indicación de “yacimientos, productos naturales y artificiales, organizaciones históricas, lenguas y dialectos en otras épocas y en la actualidad, (...), regiones artísticas y la designación de los restos de esta clase que hoy existen en cada punto”.

Para conseguirlo era preciso implicar a “naturalistas, ingenieros, arquitectos, químicos, médicos, profesores varios, militares, sacerdotes, religiosos, agrimensores, peritos diversos, etc.”. Y añadía Eguren la importancia de atraer al proyecto a “una juventud ya suficientemente preparada, a la que es preciso cultivar intensamente no dejándola abandonada al ambiente de ahogo que puede aprisionar su espíritus y actividad propios”.

### Publications

Il y a 90 ans, Eusko Ikaskuntza a publié les monographies suivantes: *La Nación de Vizcaya en la Universidad de Salamanca durante el siglo XVII*, de Amalio Huarte et Echenique; *Treviño Ilustrado*, de Joaquín José de Landazuri et Romarate; *Cursos de Metodología y Alta Cultura. Curso de Lingüística*, de R. Menéndez Pidal, Tomás Navarro, Américo Castro, Mosé Antoni Griera; *Santa María de los Reyes y San Juan Bautista de Laguardia (Alava)*, de Félix López del Vallado.

# Ikaskuntza zaleak



**Adrián Celaya Ibarra (socio nº 275)**
Nacido el 10 de mayo de 1917, Adrián Celaya fue maestro de escuela mientras cursaba Derecho por libre. En 1946 inició una carrera judicial que, desde Juez comarcal, municipal y de primera instancia, le llevó hasta la Magistratura y el Consejo del Poder Judicial. Posee las máximas distinciones en el campo del Derecho en España y en Euskadi: la Gran Cruz de San Raimundo de Peñafort, y el Premio Manuel de Irujo del Gobierno Vasco. En 1978, fue miembro de la comisión que restableció Eusko Ikaskuntza y miembro activo de su sección de Derecho. Premio Manuel Lekuona en 1995. Actualmente está centrado en la conmemoración en el mes de junio del quinto centenario de la creación del Consulado de Bilbao.



**Paco Etxeberria Gabilondo (socio nº 1.409)**
Doctor en Medicina, Médico Especialista en Medicina Legal y Forense, y Especialista en Antropología y Biología Forense. Profesor de la Facultad de Medicina de la UPV/EHU y del Instituto Vasco de Criminología. Premio Derechos Humanos de la Diputación Foral de Gipuzkoa en 2006. Su equipo recibió el Premio de Derechos Humanos del Gobierno Vasco en 2007. Presidente de la Sociedad de Ciencias Aranzadi en cuyo seno dirige un grupo de trabajo para el estudio de los desaparecidos y las fosas comunes de la Guerra Civil. Miembro de la comisión de expertos designado por la Comisión de Derechos Humanos del Gobierno de Chile para la investigación de los desaparecidos durante la dictadura.



**Natalie Morel Borotra (membre n° 3.081)**
Docteur en musicologie de l'Université de Paris IV-Sorbonne, est maître de conférences à l'Université Michel de Montaigne-Bordeaux III. Son intérêt porte notamment sur la place du chant traditionnel ou lyrique dans les processus de construction culturelle identitaire, à partir du cas basque en particulier. Les formes d'organisation de la vie musicale institutionnelle aux XVIII$^{\text{ème}}$ et XIX$^{\text{ème}}$ siècles, spécialement à Bordeaux (pratiques musicales, répertoire, réception), retiennent aussi son attention. Elle a publié aussi *L'opéra basque (1884-1937): "Et l'art basque descendit des montagnes"*, traduction castillane *La ópera vasca (1884-1937): "Y el arte vasco bajó de las montañas"*.



**Aritz Urdampilleta (6.245 zk. dun bazkidea)**
Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan Lizentziaduna. Dietetika eta Elikadura ikasketak (gradua eta graduondokoa). Kirol Errendimendu Altu eta Fisiologia Masterra. Obesitate, alpinismo eta kirol elikaduraren inguruko ikerketa proiektuetan parte hartzen du. Hezkuntza Fisikoko irakasle lanetan aritu ondoren (Eusko Jaurlaritza), egun Ergoactiv zentroan Elikadura eta Kirol Egokitu Aholkulari izateaz gain, Farmaziako Elikaduren Zientzia departamentuko ikerlari eta EHUko Farmazia fakultateko irakasle da. Kirol Ikerketa Zentroetan lankidetzan aritzen da eta baita Jarduera Fisikorako Dietetika eta Elikadura elkarte-departamentuetan.

# Argitalpenak




## El pelo en la cultura y la antropología

AUTOR: ANGEL GOICOETXEA
MADRID : EDICIONES PASTOR, 2008
344 P. : IL. ; 21 CM.
ISBN: 978-84-611-9518-3

Este libro intenta y consigue con gran acierto poner de manifiesto la presencia e importancia que el pelo en general tiene en la elaboración y recreación de la imagen personal del individuo, así como su simbología erótica. Al mismo tiempo, ofrece abundantes muestras de la presencia del mismo en muchas manifestaciones artísticas y literarias, mitos y supersticiones más o menos populares. Un libro delicioso, que se lee con sumo placer y con admiración por el monumental trabajo investigador de su autor, el doctor Angel Goicoetxea (1937), médico y farmacéutico que ha simultaneado el ejercicio médico-hospitalario con la docencia en la Universidad de Medicina de la UPV.




## Jose Manuel Zubizarreta. Etxeberri (Zumarraga)

EGILEA: JUAN AGUIRRE
DONOSTIA : SUKAL LEKU FUNDAZIOA, 2011
44 OR. : IL. ; 24 CM.
ISBN: 978-84-614-6585-9

Gastronomia kultura sustatzeko Sukal Leku Fundazioak monografia bilduma sortu du euskal gastronomiaren historia kulturala eta soziala hobeto ezagutzeko. Bildumak balorea eman nahi die XX. mendean beren eragina utzi duten sukaldari, gastronomo, sortzaile eta kudeatzaileen ibilbideei. Lehenengo zenbakia José Manuel Zubizarretari (1933-2009) eskaini diote, Zumarragako Etxeberriko buru izateaz gain, mende erdi luzez euskal kultura gastronomikoaren sustatzaile eta bultzatzaile nabarmen izan denari. José Angel Ormazabalek zuzendutako edizio honek aurkezpen eta kalitate bikaina du.



## El mundo laboral de Lasarte-Oria

AUTOR: ANTXON AGUIRRE SORONDO
LASARTE-ORIA : AYUNTAMIENTO, 2011
207 P. : IL. ; 24 CM
ISBN: 978-84-935460-6-9

En 1862 el presbítero Sebastián Insausti Treviño destacaba el progreso de Lasarte "a causa de las fábricas que se han establecido en ella". Si algo ha distinguido a esta población es la capacidad adaptativa de su tejido laboral. Primero fueron las ferrerías, luego los textiles, más tarde la metalurgia, hoy las pymes. La presente obra, publicada con motivo del 25 aniversario de su constitución como Ayuntamiento, realiza un recorrido a la historia productiva de Lasarte-Oria desde el siglo XIV hasta nuestros días. Utilizando la doble perspectiva histórica y etnográfica, se analiza el devenir de los distintos sectores laborales junto con las formas de vida y desarrollo urbano asociados a dicha evolución.




## El Testamento. Cómo zanjó Castilla la cuestión sobre la legitimidad de la conquista de Navarra

AUTOR: IÑIGO BOLINAGA
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN : TXERTOA, 2011
134 P. : IL. : 20 CM
ISBN: 978-84-7148-518-2

Al llegar al trono en 1598, Felipe III convocó una junta de hombres doctos para aclarar definitivamente la legitimidad de la conquista de Navarra. Por un escrúpulo de conciencia, Carlos V había encomendado esa labor a Felipe II, y este a su vez hizo lo propio en su testamento. Este interesante y, por momentos, brillante libro de Iñigo Bolinaga, recrea las sesiones de aquella junta de una manera amena y rigurosa, aclarando el contexto de la época y presentando a los protagonistas de la operación. El libro reproduce el dictamen original y su transcripción para ponerla al alcance de un público amplio. Un libro que gustará tanto a los aficionados a la Literatura como a los estudiosos de la Historia.

ATEJOKA
031
MAIATZA
MAYO
MAI
2011

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

**Argitaratzailea**
Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA.

**Argitalpen Idazkaria**
Eva Nieto

**Argazkiak**
Eusko Ikaskuntzako Argazki Artxiboa eta Euskomedia Fundazioa

**Harpidetzak**
Atejoka etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:

**Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak**
Miramar Jauregia, Miraconcha, 48
20007 DONOSTIA
Tel. 943-310855
Fax 943-213956
ei-sev@eusko-ikaskuntza.org.

**Arabako Bulegoa**
General Alava, 5-1º
01005 GASTEIZ
Tel. 945-231552
Fax 945-148752
gasteiz@eusko-ikaskuntza.org.

**Bizkaiko Bulegoa**
Pº de Uribitarte, 10, planta baja
48009 BILBAO
Tel. 94-4425287
Fax 94-4414650
bilbo@eusko-ikaskuntza.org.

**Nafarroako Bulegoa**
Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D
31001 IRUÑEA
Tel. 948-222105
Fax 948-211737
iruna@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera 9:00-13:00 eta 15:30-17:30; ostirala, 9:00- 13:00

**Horario**
De lunes a jueves de 9:00-13:00 y de 15:30-17:30; viernes de 9:00-13:00

**Iparraldeko Bulegoa**
51 quai Jauréguiberry
64100 BAIONA
Tel. 559598290
Fax 559461844
baiona@eusko-ikaskuntza.org

**Ordutegia**
Astelehenetik ostegunera: 8:30-12 eta 15:00-18:00. Ostirala: 8:00-12:00.
Du lundi au jeudi: 8:30-12:00 et 15:00-18:00 et le vendredi de 8:00-12:00.

L.G.: SS-1150-2008. ISSN: 1889-0342
Fotokonposaketa: Ipar SL
Inprimategia: Michelena a. g. Astigarraga